

## ANTONIO BERRUETA ALZOLA (1917-1991)

Antonio Berrueta Alzola, euskaltzain urgazlea, Gasteizen hil zen, urtarrilak bost, 1991, hirurogeitamahalau urte zituela.

Orbison, Arabako Ekialdean, beraz, sortu zen 1917an, sei anai-arrebaren artean bostgarrena. Lau urterekin, familia guztia Gasteiza aldatu zen eta bertan eskolako lehen urratsak egin: San Viatorren lehenik eta gero Urbinaren eskolan.

Hamalau urterekin hasi zen lanean, dendako langile. Lau dendatan ari izan zen zahar-saritu arte, baina lauak jabe berarenak ziren (“El Vasco”, “Almacenes Castresana”, “El Barato”, “Saldos”, eta “El Telar”). Denbora laburrean Eibarren bizi izan zen, “El Barato”-ren hango ordezkartzaren hasieran. Hau dela-ta adiskide batzuk egin zituen bertan, Juan San Martin eta Imanol Lazpiur, besteak beste. Hain zuzen ere, Andoni Urrestarazuren gramatikaren lehen argitaraldia talde honi esker gauzatu zen. Berruetaren Urrestarazurenganako atxikimenduak beste guztiak akuilatu zituen.

Tartean, ordea, gerra dugu, edota soldadutza luzea, baina gerran. Urte askoren buruan, mediku batek galdetu zion:

—¿Vd. fue a la guerra?

—No, me llevaron.

Eraman, leku askotara, gainera: Ebroko gatazkan, Kataluniako frontean eta Albaceten izan zen Berrueta.

Soldadutzara baino lehen, ordea, gerra hasi ahal, izualdi bat izan zuen. *Kirok-zaleak* elkartearen karneta aurkitu omen zion poliziak eta gauerdian bila etorri, hura lo zetzala. Anaia zaharrenak galdetu zien zergatik zetozen bila, bai eta huskeria zela sinestarazi. Furgonetako gidariak, euskaldunak, egin zuen gaineko, perpaus biribil honetaz (Antonio anaia txikiagatik):

—Los chavales a la cama.

Euskaltzale porrokatua izan zen Antonio Berrueta gazte-gaztetandik. Euskaraz ikasteari Andoni Urrestarazurekin ekin zion, beronen etxean, poliziak eskola horiek debekatu arte (dirudienez, haiek ez ziren haur kontuak). Gero, atek edo atekak zabaldu zirenean, San Joseko elizan, Institutuan eta *Udaberria* elkartean eman zituen berak eskolak. Askok izan dira Berruetaren ikasleak: Antonio Agirre-zabal, Todor Agirre, Peli Martin eta beste anitz.



*Antonio Berrueta (lehendabizikoa eskuinaldetik) Arantzazun, agian 1956.ean. Haren ondoan Koldo Mitxelena. Besteak nortzuk diren ez dugu jakiterik izan.*

Adoretsua zen eskolak prestatzen: makinaz gaiak eta hiztegiak txukun jo, kopia egin, orduak eta orduak ematen zituen irakasleak ikasleek euskararen aldapa biguintzeko. Ondoren, Urrestarazuren gramatika agertu zenean (1955ean), lanok erraztu ziren, jakina.

Irakurzaletasun handia zuen. Etxea liburuz betea zuen, euskal eta erdal liburuz, asko zahar-sarituko zenean irakurtzeko asmoz erosiak. Baina ez dira gutxi ertzak moztu gabe gelditu direnak.

Mendigoizale bipila genuen orobat. Berandu arte ibilia da mendian, eta Andoni Urrestarazu erbestetik itzuli ondoren ez zuten iganderik huts egiten Estibalitzera gabe.

Ezkongabe zen Antonio Berrueta eta bi arrebarekin bizi zen Pio XII kalean. Bertan hil zitzaigun adiskide ona, gizon xaloa eta langile nekaezina.

*Donostia, 1991-III-22*

*E. Knörr*